ESKOLAKO AGENDA 2030

USURBIL UDALA

udalsarea21
jasangarritasunerako udalerrien euskal sarea
red vasca de municipios hacia la sostenibilidad

BASOAK

USURBIL

2020-2021 IKASTURTEA

Urtero bezala, iritsi zaigu ikasturtean zehar egindako lanak bildu eta udalean aurkezteko garaia. Aurtengoa ere nahikoa bitxia izan bada ere, kanpoan ibiltzeaz gozatzeko aprobetxatu dugu. Eta egindako irteerei esker, Usurbilgo altxor ugari ezagutu ditugu. Gainera, aurtengo eskualdeko Eskolako Agenda 2030 gaia oso aproposa izan da: Basoak, hain zuzen ere! Eta horiekin bat egin dugu.

Aurreko lau urtetan, Eskolako Agenda 21 programa landu dugu eta gure bostgarren ikasturte honetan, Eskolako Agenda 2030 izatera pasa da. Hemendik aurrera, mundu mailan ezarri diren Garapen Jasangarrirako Helburuak ezagutzen arituko gara. Lehenengo honetan, 15. GJHa landu dugu: Lehorreko ekosistemak. Eta honen barruan kokatu da jorratu dugun gai zehatza, basoena.

15 LEHORREKO EKOSISTEMETAKO BIZIA

Motibazio jarduerak

Gaiari hasiera eman genion motibazio jarduerak burutzen eta horien arten Oka jolasean aritu ginen. Bertan proposatutako galderekin jolastuz ikasi dugu basoa eta zuhaitz landaketa ez direla gauza bera.

- **Basoa** zuhaitz multzoa baino gehiago da, bertako elementu bizidunek eta bizigabeek ekosistema bat osatzen dutelako.
- Eta **zuhaitz landaketa** batean ordea, zuhaitz guztiak adin eta espezie berdinekoak dira eta lerroan daude jarrita.

Beste galdera zen ea zein zuhaitza den neguan hostoa galtzen ez duena, eta erantzuna erraza zen: pinua. Orbela hitzaren esanahia ere ikasi dugu: orbela zuhaitzetik eroritako hostoek osatzen duten geruza da.

Ondo pasatzen dugu urtero oka jolasarekin.

LH 4.mailako ikasleok **Basoko begiak** ipuina entzun genuen. Mieltxo eta bere aitona dira kontakizun honetako protagonistak. Aitonak basoko gauza asko erakusten dizkio Mieltxori: nola egiten diren metak, zeintzuk ziren basajaunak, nork zaintzen duen basoa… Ipuina entzun ondoren ipuinari buruzko marrazkiak egin genituen.

Aurten ere **Txoko Berdea** apaindu dugu. Hemendik aurrera **Ostadar Txokoa** deituko diogu. Hormirudi honetan Usurbilgo zuhaitz batzuren argazkiak jarri genituen erakusgai. Ondoren Bidasoako sutea gertatu zen eta egunkarietan azaldutako argazkiekin ere hornitu genuen txoko hau.

Basoak **eskulanak** egiteko aukera eskeintzen digu. Aranerrekara joan ginen eta bertan topatu genituen elementuekin gure artelanak sortu ditugu.

Ezkurretatik basoak ernatzen

Urrian LH 3.mailako ikasleok ikastola ondoko haritzaren **ezkurrak** jaso genituen, gelara eraman eta **landatu** egin genituen. Helburua bertatik landarea jaiotzea izan zen baina ez genuen helburua lortu.

- Udaletxeak haritzak landatzea proposatu zigun eta horrela **Andatzara** joan ginen. Bertan udaletxeko langileekin batera gutako bakoitzak haritz bat landatu genuen.
- Mundu mailako Basoen Eguna aprobetxatuz (martxoak 21), Basoen Astea ospatu genuen, Gipuzkoako beste 50 ikastetxe baino gehiagorekin batera. Aste horretan, ikastolako belardi batean bi haritz landatzeko proposamena jaso genuen. Horiek jangela ondoan landatu genituen. Hemendik aurrera haritz horiek zaintzea tokatzen zaigu denoi.

Gure ingurunea aztertzen

Basoa gaia aztertzen hasi baino lehen gure herriko planoa aztertu dugu. Udaleko web orrian mapa interaktiboa erabiliz alde batetik ikasi dugu zeintzuk diren Usurbilekin muga egiten duten herrialdeak. (Orio- Donostia-Lasarte- Zizurkil eta Aia). Bestetik ikusi dugu Andatza mendiak herriaren zati handi bat osatzen duela.

Andatza hobeto ezagutzeko mendi ibilbideak egin ditugu. Irteera hauetan Andatzak ondare haundia duela ikusi dugu.

- Txokoaldetik abiatuta **Erroizpeko presa** ezagutu dugu eta ikasi dugu hor biltzen diren urak herriaren zati bat hornitzen duela. Beste zatia Añarbeko presatik hartzen du ura.
- Erroizpeko presara iritsi baino lehen **Zeta fabrikaren** aztarnak ikusi genituen. Haritzaren zeta harra hazi nahi izan zuten era industrialean, handik, gero, zeta ekoizteko. Gipuzkoan eta Estatu mailan oihartzun handia lortu zuen, eta laguntza ekonomikoa eta politikoa izan zituen. Hala ere 1890an itxi zen fabrika. Txoriek jaten omen zituzten harrak, baina ez dakigu benetan zein izan zen fabrika ixtearen arrazoia.

Ibilbide honetan ere **errotarriak** aurkitu ditugu.

Andatza Gipuzkoako errota-harrobirik nagusiena izan zen eta Euskal Herriko garrantzitsuenetakoa.

Harginak eskaera bat zutenean igotzen ziren mendira, harkaitz batzuk zituzten jada erdi prestatuta. Errotarri-harginek, batzuetan, harrobiaren ondoan gaua igarotzeko txabolak eta babesleku txikiak eraikitzen zituzten.

Begia edo erdiko zuloa egitea zen lan kritikoa. Horregatik amaierarako uzten zen.

Errotarri gehienak Oria ibaiko ontziralekuetara jaisten ziren, hauek itsasoz bidaltzeko.

Usurbilgo errotarriek fama haundia izan zuten eta Gipuzkoan 1809an oraindik ere errotarriak eramaten ziren Usurbildik Eibarrera.

Ibilbidean zehar, errepide bazterrean beste landare batzuk ikusi genituen hala nola, azeri buztanak, osinak, menta belarrak, iratzeak, e.a.

Gipuzkoan ohikoak ez diren zuhaitzak ere ikusi genituen, olibondoak (Etxe txuri-n, Bizkarreko etxeen ondoan) eta palmondoak adibidez.

Andatzak badu beste aberastasun bat: **trikuharriak** (aintzineko hilobiak dira). Andatzan asko daude, horietako bat Etumeta.

Basoak eta toponimia:

Basoak garrantzi haundia du herriko hainbat lekuren izenak bertatik datozelako. Adibide batzuk:

- Euskaltegiak, Etumeta izena du.
- Kiroldegiak Oiardo izena Andatzatik hartzen du,
- baita denbora libreko taldeak, Ziortza.

BASOAK

Arratzaindik Aginara

Egin dugun beste egun osoko txangoa, Arratzaindik Aginara izan da eta bidean, leku batzutan eukaliptoak ikusi genituen. Zuhaitz honen inguruan hainbat informazio bildu dugu:

- Australiatik ekarritako zuhaitz bat da,
- Azkar hazten da eta gero bere egurra papera egiteko erabiltzen da.
- Lurzoruarentzat kaltegarria dela irakurri dugu, adibidez lurretik ur asko xurgatzen duelako.

Zuhaitzekin ikasten

- Gelan landutako fitxetan ikasi dugu **ikatza** egiteko **pagoa**ren egurra erabili behar dela.
- **Lizarra**ri buruz ikasi dugu etxeetako atarietan jartzeko ohitura dago, **etxea babesteko**.
- **Urkia** zuhaitza oso errez ezagutzen da **enborra txuria** duelako. Ikasi dugu garai batean baserritarren **lurren muga non zegoen** jakiteko erabiltzen zituztela.
- **Zuhaitzak neurtzen**. Herrian ditugun zuhaitzak aztertzeko beraien altuera eta lodiera kalkulatzen ikasi dugu..

Horretarako ikastolaren ondoko pagadira joan ginen eta neurketak egin genituen metroa erabili gabe.

Zuhaitzen **lodiera** zuhaitza gure besoekin inguratuz kalkulatu genuen, eta ikasi dugu gure besoak gurutze moduan jarrita eta guk daukagun altuera berdina dela.

Zuhaitzen **altuera** kalkulatzeko pertsona batek zuhaitzaren azpian jarri behar zuen eta gero gutxi gora behera bere neurriko zenbat pertsona behar ziren zuhaitza osatzeko kalkulatu behar zen. Gero pertsona horren altuera neurtu eta pertsona kopuruarekin biderkatuz zuhaitzaren altuera kalkulatzen zen.

Badakigu zuhaitzak oso garrantzitsuak direla, alde batetik oxigenoa ekoizten dute eta horrela airea garbitzen dutelako eta bestetik lurra eusten dutelako, horregatik egoten dira errepide ondoko aldapetan.

Bosgarren mailakoak **ekosistemaren gaia** landu genuenean maketa batzuk egin genituen.



Hau izan da ikasturte honetan, Eskolako Agenda 2030 programaren barruan egindako lana. Ahalegin guztiak egin ditugu aurten bizi izan dugun egoeraren gainetik lan egiteko. Datorren ikasturtean, helburu berarekin jarraituko dugu eta basoez gain, larre eta soroak ere aztertuko ditugu. Denon artean, herri jasangarri baten alde jokatu behar dugulako, inor atzean utzi gabe.

Eskerrik asko zuen arretagatik!

BASOAK